

A T Z O K O
Andoain

eta andoaindarrak

13. zbk.

2000ko otsailaren 27a.

Baserria

*eta
ando
ainda
rrak*



BASERRIA, BAZEN HERRIA

Zenbat eta urrunago historian, orduan eta garrantzi biziagoa izan dute baserriek Andoainen. XX. mendera bitartean, kaletxeak baino ugariago izango ziren, ziuraski, inguruko basetxeak. Hala izan zen, Andoainera ere heldu zen industrializazio prozesuak egoera hori irauli zuen arte. Sakristautza lanari esker baserri izen guztiak buruz dakizkien Jose Sakristauak, mende haseran 180tik gora zeudela gogorarazten digu zeudela: "Sukaldea zutenak, alegia, lurzaintza eta abeltzaintzatik bizi zirenak. Gaur egun, ordea, helduko al dira dozena erdira halatsu bizi direnak?".

Baserriek, kaletik bereizten ziren eginkizun eta bizimoduak zituztenez, aparteko gizarteak osatzen zituzten, auzoka edo bailaraka. Baserriak, nor bere bakartasunean ere, gizarte txikia osatzen zuen eguneroko bizitzan.

Badakigu, XX. mendea bitartean, bizialdi luze batez, Andoaingo hiri barrua gizendu eta zabaltzeko zegoenean oraindik, bere kale bizitza inguruetako baserrien legera makurtzen zela. Bazirudien gainera,

kalearekiko nagusitasun hori "zaintzeko" zeudela zuti-turik, kalean sakabanatuta, Arrate, Ondarreta... eta beste baserriak. Baina badakigu ere, harrezkerotik, urtez urte, nekazal giroko bizimodu eta eginkizunak kaletartzen joan direla.

Joxeren ondorengo belaunaldikooi ahaztu zaigu, lotsagarriki, Andoaingo parajeek eskaintzen dizkiguten baserri, soro, abere, lanabes edo zuhaitzietz begiratzeari. Bost ajola zaigu ia, horiek noizbait izenik eta bizitzarik izan ote duten, edo ba ote dutenik gaur. Bost ajola horien atzean, garenaren zati bat idatzia agertzen bada ere.

Bestelako jarrera azaltzen dute gure aurreko belaunaldiek. Badoakigun nekazal munduan haziak direlako batzuek -baserrikumeak-, edo bizipenez eta sentimenduz lotuta sentitzen direlako besteak -kalekumeak-. Eta horren fede emateko pronto ditugu zenbait gizon-emakume, hurrengo lerroetan.

Nabari zaie, nabari, ezagutu zutenaren eta badoanaren baserri giroaren nostalgia, baina aldi berean, gogoan dituzte baserriaren bizi-nekeak...


ASKOZ GEHIAGO ZIREN LEHEN

Gure gaurko hizkideak denak bat datoz: Andoainen makina bat baserri da nekazal munduak galdu duena. Adibidez, horietako mordoskari ez zaie arrasto fisikorik geratzen; besteei, saskakaz eta sasiz jositako hormatzarren bat besterik ez. Badira, gizakion utzikeriagatik, izkuta bidean diren baserriak. Badira ere, zutik bezain

hutsik daudenak, abereen egonleku gisa asko jota. Eta badira, nekazari bizitzari uko egin diotenak; hauek kaleko etxebizitzaren funtzio berbera betetzen dute orain, eta gainera, horietako zenbait, jabeek jatorrizko baserria nola eraberritu hala itxuraz aldatu dituzte eta txalet tankera eman.

Baserri horien izenak eskatu bezain pronto, buruz errezitatzen dizkigute, sasoi batean dotrinarekin egiten zuten eran. Izatez ere, baserri horien bizi-ibilbidea beraiena pare-parean heldu baita gaur arte. Beraien atzo eta gaurko oroimenean zati ahaztezonekoak baitira. Gogoan dauzkatenak, bailaraka sailkatuz, dira:

Buruntzan: Ubalategitxiki, Ikutzaberri, Ikutzazarra, Isal, Isaltxiki, Elizagarate, Arrieta, Lugarritza, Elizagarteaundi, Elizagaratetxiki, Kamioaundi, Txitxarrain, Gorostidi, Lizarra, Buenabixta, Arrantzugoikoa, Loinaz, Galartzazar, Garagartzagoikoa, Txutxurrutegi... Sorabillan: Allurralde, Allurraldetxiki, Bazkardotxiki, Bazkardo, Sorabilla Bazkardo, Bekoetxeberri, Lakatxe, Gurmendi, Erdoizta, Patxinea, Izturitzagatxiki, Azpikola, Erramueta, Areneta... Goiburun: Ubilluts, Donatxeletxiki, Donatxeleborda, Zozperri... Leizotzen: Etxamuno, Garrozarra, Amezti, Izoztegi, Asun, Baltzusketaundi, Artolaborda, Kaskabeltxa, Munttegi, Ubaran... Leitzaranean: Benezia, Baltzuntxiki, Benezia Etxebe-



Lakatxe baserria. 1962ko San Migel egunean errea.

rri, Maxartegi, Lekunategi, Meaka, Idoiaga, Baltzuntxiki, Penadi, Masarrena, Etxarri... Eta azkenik, kalean: Lertxundi, Ondarreta, Arrate, Aranzubi, Galardi, Bazkardo, Garaburu, Aierbe, Alfaro...

Txutxurutegi baserriaren azkenaren ixtoriak sinboliza dezake argi samar, modernitatea nola doan irensten mundu tradizional hori, Roke Ansaren esanetan. "Orain 70 urte inguru, haurra nintzela ezagutu nuen nola erre zen. Orduan, errepidez bestalde zegoen Olamia lantegiak erosi zuen bere lurraldea, ola biltegia ireki-

tzeko hantxe". Baina, baserriak arima izan nonbait, eta, bere izen eta izanaren testigantza betirako ikusgarri utzi nahi izan balu bezala, "bere arkitekturen lau hormak bere hartantxe, zutik, geratu ziren eraikuntza berrian. Teilatua bakarrik erantsi zioten, gaur egun pasaeran ikus daitekeen moduan".


Harrezkerotzik, "noizbait Txutxurutegi izana zenaren aztarna bizia, orain progresoaz inguraturik dagoela esan dezakegu, trenbidearen, errepidearen eta Kraffteko aparkalekuaren artean".



Roke Ansa

"Noizbait Txutxurutegi izana zenaren aztarna bizia, orain progresoaz inguraturik dagoela esan dezakegu, trenbidearen, errepidearen eta Kraffteko aparkalekuaren artean".

NOLAKO BASERRIAK



Oiartzabal-Usandizaga sendia, Istuitza Txiki baserriko sukaldean. Bertan ikus daitezke, hormara itsatsitako tximinia eta sukaldeko hainbat tresneri. (Argazkia: familia)

Aspaldiko baserriak, harrizkoak eta, "txikiagoak ziren, oraingoen aldean, gure etxetik hasita", gogorarazten digu Garron bizi den Patxi Irizarrek. Baserri gehienaren barne egitura, hortaz, konplikaziorik gabekoa behar zuen izan. Lehengo kaletarren antzera, Iñaki Arregik bizirik du baserrien antolaketaren gogoramena. "Lehen solairua sukaldeak eta ikuiluak betetzen zuten, eta goikoa, berriz, logelek. Egurrezkoak ziren komunak, zuzenean

ikuilura zihoazen. Askok gainera, karranpa erantsia zuten kostadutik, belarra zahartzeko ganbara edo mandioan".

Baserria etxekoez gain, abereak, lanabesak eta uzta ere gordetzen zituen, hala-holako etxebizitza behar zuen izan garbitasunari zegokionez. Eta argitasuna? "Kristalezko leihoak etorri ziren arte, irekita eduki behar egurrezko haiek, argia sartuko bazen etxezulo-ra", dio Josepa Ormaetxeak.



Iñaki Arregi

"Lehen solairua sukaldeak eta ikuiluak betetzen zuten, eta goikoa, berriz, logelek. Egurrezkoak ziren komunak, zuzenean ikuilura zihoazen".

EGUNEROKOA



Roke Ansa

"Garaketara, oso urrutiko mendietara joan ohi ginen, Usabelartza, Osinaundi eta alde horietara, ganaduen ikuiluko etzanlekuak txukuntzeko, eta bidebatez, ximaurrea egiteko gero lurrak ongarrizteko".

Argazki zaharrek erakusten duten baserri giroaren aire bukolikoa desmitifikatu beharra ikusten da mahainguruan. Baserri bizimodua, "triste eta gogorra, inoiz bukatzen ez zen lana baitzen" diote, aho batez. Euskal lurren ustezko aberastasun naturala ere gezurtatzen du Ormaetxeak, "nekez tartekatzen ziren uzta onak eta txarrak. Beti ziren uzta txarrak".

Baserrian hazitako Roke Ansa gogoan ditu Buruntzaldeko nekazarien martxa, goizetik gauerakoa, zertara lotzen zen. "Etxe ondoko baratza eta lur sailak lantzen ziren, urtaroari begira beti ere. Lurrak garbitzen eta lantzen hasi behar izaten zen martxo-apirilerako, gero maiatzean artoa eta babarruna ereiteko. Hortarako, ganadua hartu eta karramarroaz jira buelta egiten zen soro guztian, lurra leundu arte". Gero zetorren golde horztunaren ekina. Lur lanketan erabilera handia zuten bi lanabes ere, alperra eta hesia, aipatzen dituzte

Ansak zein Patxi Irizarrek: "lehenbizikoa, harrizko zilindroa, biraka lur mokorrek txikitze erabiltzen zen; eta bigarrena, zumitz-adarrak trabeska jarritakoa zen, lurra xehatzeko eta ereiteko prestatzeko erabiltzen zena".

Motorra bezalako aurrerapenak ezagunak ez ziren sasoian, nekazal produkzioaren teknika aski zaharkitua zen. Trakzio sistemak ere, ganaduan eta giza-indarrean oinarritzen ziren. Baserri lan nekagarrietan nekagarririk bai, eta Rokek garaketa du gogoan. "Garaketara oso urrutiko mendietara joan ohi ginen, Usabelartza, Osinaundi eta alde horietara, ganaduen ikuiluko etzanlekuak txukuntzeko, eta bidebatez, ximaurrea egiteko gero lurrak

ongarrizteko. Egun guztiko bidajea, eta, ganadua eta gerok ere, neka-neka eginda etxera".

Patxi berriz, segalanak dakartzigu: "Gu, goizeko 4etan eta lehenagotik jaikiak gara makina bider, bezperan gaueko 10etan lantegitik atera eta gero. Agudo hiruak eta erdietan jaiki, txokolate puntta jan, tragoxka ardoa edan, eta martxa! Goizean eguna txintatzen hasterako, saila ia dena segaz eginda genuen. Lasterrera, berriz ere txokolate mutturra jan, sega pikatu, eta hara beste saioa! 9ak aldera edo, gosari mokadua, etxekoandreak ekarria. Ostera ere, belaziak zabaldu, jiratu... Eguerdirako, balantzaka etxera. Ez mozkorrek, eh!, arituta baiziki!"



Garaketan, Buruntzaldeko baserritarra.

ARDURAK

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko arduren banaketa eman, ematen zen baserrian, baina maiz, zeregin astunetarako ez zegoen sexu ahulik. Gizonezkoena bezain beharrezkoa zen emakumezkoen lana.

Nekazal familietan, besoak ziren kontaktatzen zutenak, eta horretan oso estimatuak ziren emakumeak, Joxepa Ormaetxearen esanetan: "Baserriko


emakumeak otordua jarri, erropa arraskan eskuz garbitu, ume koadrila ederra hazi..., eta gainetik gero, baratzean eta soroan gizasemea bezainbat moldatzen zen".

Are gehiago, Patxi Irizarrek aitortzen die emakumei abiltasun berezia zenbait zereginetan, adibidez, ura etxeratze eginahalean. "Nola eramaten zuten suila, gero, egurrezko



Josepa Ormaetxea

"Emakumeak otordua jarri, erropa arraskan eskuz garbitu..., eta gainetik gero, soroan gizasemea bezainbat moldatzen zen".



Goldearekin, senar-emazteak eta aitona atzetik.

ontzi hura, buru gainean! Baltzuneko askatik Garro baserrirako bidea, nahiz aldapa izan, egiten zuten poliki poliki, kanpora ttanttorik batere bota gabe. Eta eskuak hari eusten? bai zera! Marmitako baldeak esku banatan hartuta!”

Azken batean, sexuen gainetik, egunerokoan erabiltzen zen filosofia Roke Ansak poliki asko laburbiltzen digu, koplak bidez:

“Bakoitzak banatu al zen moduan. Denentzat nahiko izaten genduan. Laguntza eskatu, ezin zen orduan. Batek hartu, besteak utzitakoan.”

PRODUKZIOA

Gipuzkoako baserriaren ustiapen sistema minifundista zen garai haietan. Hori bai, “dirua behin ere emango ez zuen moduan”. Bestalde, baserri familia, bizimodu autarkikora moldatzen zen. Hortaz, etxean landatzen zituzten barazki eta gainerako luruzteie esker bizi ahal izaten zuten, nolabaiteko burujabetza lortuz. Inaki Arregiren zerrenda luzeak ez digu zalantzarik uzten: “alfafa, pagotxa, gaztaña, mizpira, arbia, erremolatxa,



Patxi Irizar

“Galiziara eramaten zen erruz sagarra. Elixondoko parera, noizbait etortzen zen biltzailea, eta baserritarrak jaisten ziren. Baina huskeria ordaintzen zieten, eta biltzea asko kostatzen zenez, baserritarrak azkenean egin zituzten sagastiak bota”

artua, babarruna, arana, sagarra mota ezberdinak... Barazkietan, tomatea, aza, azenario, baina, ilarra, porrua, tipula, tipuliña, azelga...”

Aspaldi urrunean Andoainean sagarrak zuen estimuaren seinale dugu, bere toponimiako izen askok sagastia izatea oinarri. Inaki Arregik baieztatzen digu horixe: “kalitate bereziko sagar barietate handia atera izan da hemen: errege sagarra, udare sagarra, txalaka, libra, santioa, sanjuana, merkulina...”. Atal honetara heldurik, gizon bat izendatu nahi luke Arregik: “Zaletasuna ikaragarria zuena, arbola zaharrak txertatzen eta, Inuzentzio



Ondarreta baserria. Bere soroan, lekarako prestatutako baratza ikus daiteke. (Argazkia: Udal Artxibategia)

Munita apaiza zen. Muñagorriko, La Salleko... zuhaitzi ederrak bere eskukoak ziren”. Patxi Irizarrek atzo eta gaurkoaren arteko kontraesana aipatzen digu: “Galiziara eramaten zen erruz sagarra. Elixondoko parera, noizbait etortzen zen biltzailea, eta baserritarrak jaisten ziren. Baina huskeria ordaintzen zieten, eta biltzea asko kostatzen zenez, baserritarrak azkenean egin zituzten sagastiak bota. Gaur Galiziara doa bila, hemengo sagardozealea”.

Sagaztiez gain, zuhaitz aniztasuna oraingoan aldean, oparoa zela esaten digu Arregik. Gaztaña, apartekotasunez. “Galarditik gora eta hirigunetik atera bezain pronto, pilaka zeuden

errotuta”. Baina, Irizarrek agudo eransten dioenez, ordea, “gaztaña, gaitzak harrapatu zuen. Egun, zumarra gaitzak hartuta dagoen bezalaxe”.



Inaki Arregi

“Kalitate bereziko sagar barietate handia atera izan da hemen: errege sagarra, udare sagarra, txalaka, libra, santioa, sanjuana, merkulina...”

AZIENDA ONDASUNA

Esnea edo haragia lortzeko, edo nekazari lanerako lagungarri ziren abereen inbentarioa ere ez da makala. "Baserri koxkor gehienek bazuten bost-sei behi, idi pare, eta astoa lanerako, gero aparte 30 bat oilo, bi txerri gizendu eta etxean jateko, eta txekor mordoska hazi eta haragia saltzeko" zehazten du Rokek.

Abereak eta hegaztiak haztearen usadioa kaletarrei kutsatu omen zieten baserritarrek, eta Bixente Olanok kontatzen duenez, "akuriak, oiloak, txerriak eta antzeko abereak hainbat kaletxetan ikustea, ez zen harritzekoa".

Baserritartutako kaletxe baten kasu bitxia aipatzen digu Joxe Mari Amutxastegik, "Etxeberrietan, Egibarren etxe barrenean ikuilu ederra



Bixente Olano

"Akuriak, oiloak, txerriak eta antzeko abereak hainbat kaletxetan ikustea, ez zen harritzekoa"

zegoen jarrita, ganadua eta kabitzeko moduan. Etxea poliki moldatua zegoen, eta bazuen ermita txiki bat, eta, lokarrien bidez sukaldera zihoan igogailu sistema kuriosoa ere".

Ordea, Noeren arka-baserriak aspaldiko kontuak dira, ez oraingoak, eta hori mingarri egiten zaio Olanori, nahiz eta bizitza modernoaren premiak uler ditzakeen: "kaletarraren gisara, baserritarrak ere errazkerira jo du, eta ondorioz, gaur pena ematen du ez oilo, ez koneju..., ezerik gabeko baserri parajeak ikusteak".

Esan izan da idi pare indartsua edukitzea, aberastasun sinbolotzat jotzen zela. Galardi, Bonbon eta Ondarreta baserriak akaso ez ziren aberatsak izango, baina ospea bazuten beren idi mardulei esker, Irizarrek kontatzen digun bezala: "Baserri lanerako denok geneukan bi kurpileko gurdia tirako zuen ganadua. Kaminoetan garraiatzeko, ordea, lau kurpileko gurdiekin jardungo zuen puntako idi pare behar zen, hiru baserri horienak. Ikatza zela, Papelerako pasta zela..., igual lau mila kiloko portean garraiatu behar ziren. Dena zamatu-



Joxe Mari Amutxastegi

"Etxeberrietan. Egibarren etxe barrenean ikuilu ederra zegoen jarria. ganadua eta kabitzeko moduan"

rik Etxarriko aldapara atera beharra zegoen, zera!".

Idiez gain, astoak ere oso erabiliak izan ohi ziren baserrikeri kalerako garraio kontuetan. Tradizioz Andoaingo baserriek maila handiko merkatu salmentarik egin izan ez badute ere, Irizarrek Etxaberen salbuespena dakartzagu: "Azenarioa, porrua..., sail izugarriak landatzen zituzten. Goizeko 6etarako hiru astoka beteta jaisten zituzten tranbiara, egunik faltatu gabe". Hortaz gero, Rokek bere etxean entzunak ere gogoan ditu: "Buruntzaldetik, astoak esnez zamatuta, kaleko etxeetat aparte Donostiara ere orain ehun urte joaten omen ziren. Orduan oinez joan ohi ziren, gero tranbian eta geroago trenez".

AUZOLANA

Euskaldunaren jardun publikoan betidanik nabarmendu da auzoarekiko elkartasuna. "Zenbait lanbideri -dio Irizarrek- ezin famili bakarrak aurre egin, Leizotzeko bizilagunok auzolantara jotzen genuen. Gastua ordaintzeko lain jarri hainbeste xox, eta ibiltzen ginen garotan, gurdien kurpiltzarrek txikitutako auzobideak konpontzen..., eta behar zenetan".



Roke Ansa

"Andoaindarrok fama txarra genuen, eta ez zen gutxiagorako. Bata bestearen teman, elkarlanak geratzen ziren egiteko".

Baina dena ez zen anaitasunezko giroa. "Andoaindarrok fama txarra genuen, eta ez zen gutxiagorako. Bata

bestearen teman, elkarlanak geratzen ziren egiteko. Urnietan eta Hernanin gureak ez bezalako bideak izaten zituz-



Orain Inquitex dagoen lurretan. Sorabillako baserritarrak sorolanean. Atzeko baserriak, ezkerretik eskubira: Ballestagin, Matxinea eta erre zen Lakatxe. (Argazkia: Udal Artxibategia)

ten". Haien konpon erreztasunak inbidia eragiten ziela hemen, aitortzen du Rokek.

Auzolanaren bidez bideratzen ziren, batipat, auzotarren arteko harreman sozialak. "Ikuiluko lanak egin, afari legea egin, eta martxa, baten baten sukaldera joaten ginen artazuriketara. Hantxe, biribilean -gaineratzen du Irizarrek-, honek kontu zaharrak berritu,

harek bertsoak kantatu, eta emakumeak errosarioan igual, eh! Goizaldera, berriz, txokolatea jarriko zuen emakumeren batek. Hurrengo larunbatean, beste baserriren batera". Behin eta bitan galdetu -edo zirikatu-, ondoren, azkenean aitortzen digu halako tertulietatik bikoterik sortu, sortzen zela: "gurea, konparazio baterako!



Patxi Irizar

"Hantxe, biribilean. artazuriketara, honek kontu zaharrak berritu, harek bertsoak kantatu, eta emakumeak errosarioan igual, eh!"

ONDASUNAK TENTAGARRI

Baserriaren ondasunak beti izan dira kaletarraren begietara tentagarrri, gehiago goseak estutzen duenean, Gerra Zibilaren ostean, esate batera. Miren Zarragak ez du zertan eskutaturik lapur txikia zenik. "Ez dakit apropos egiten ote zuten baserritarrek, baina sagastietan, sagar emankorrenak erdian egoten ziren, eta makalena bazterretan. Eta noski, gozoenetara inguratzerako denbora joaten zen.



Miren Zarraga

"Ez dakit apropos egiten ote zuten baserritarrek, baina sagastietan, sagar emankorrenak erdian egoten ziren, eta makalena bazterretan".

Baserritarraren lokuluxkarekin batera sartzen ginen gu. Baina bizkorra izan, txakurra jartzen zuen gure peskisan. Haren zaunkekin, kolkoa bete sagar aldapan behera joaten ginen ihes. Leku segurura iristean, konturatzen ginen alperbidajea egin genuela. Bidean aidean joanak zirela sagar denak, eta gurekin etorria zen bakarra, ustela zela!".

MAIORAZGOA

Baserri familiaren ondasunaren osotasuna zatikatu gabe mantentzea helburu zuen instituzioa zen maiorazgoa; hartara, aurrenik jaiotakoa izendatzen zen oinordeko, Bixente Olanok argitzen digun bezala. "Zaharrenari baldintzak jartzen zitzaizkion, halako urtean baino lehenago ezkondu beharra-eta. Hark oinordekotza jaso bitartean, gainerako senideek bizitzen ziren bertan. Mantenuaren truke, baserriko lanak egiten zituzten. Ohitura ere bazen, senideren bat etxean geratzea betirako; bertan mutil edo neska hartuko zen".



Joxemari Olazabal

"Ubilluts baserri kaskarra zen, han ez zegoen fantasia handirik, eta lau senideek Ameriketara joan behar izan zuten"

"Hamar-hamabi senideko familiak normalak ziren, bestela pekatua zela ematen baitzuen" dio Ormaetxeak. Panorama horretan, zaharrenak ez beste guztiek nola edo hala, bizimodua atera egin behar izaten zuten. Olazabalek, beste hainbat etxetan errepika-

tzen zen irtenbideetako bat, latzena akaso, aipatzen digu, bere etxean gertatua: "Ubilluts baserri kaskarra zen, han ez zegoen fantasia handirik, eta lau senideek Ameriketara joan behar izan zuten".



Loren Navarro, garai bateko baserriko emakumearen janzkeraz dagoen birramonaren besoetan. (Argazkia: familia)

... ETA HURRENGO ALEAN ZER:

Zerbaki honetan behin eta berriz aipatu dugu herrian lantegiak zabaldu eta sendotzen hasi zirenean erabat aldatu zela nekazal mundua; Baserritik bizimodua ezinean ateratzen zuenak fabrikarako bidea hartu zuela ahal izan zuen bezain pronto eta hala joan zirela, gutxika-gutxika baserriak desagertzen. Kontakizun horri segida logikoa eman nahian, bada, Andoaingo industriari errepasoa emango diogu hurrengo hileko zenbakian.


Makinatxo bat lantegi bazen Andoaingen orain mende Erdiko buelta hartan. Guk, ordea, herrian garrantzirik handiena izan zutenei erreparatuko diegu: besteak beste, Algodonera, Bonbas, eta nola ez, Laborderi.

Horiei buruzko jakingarriak txukun-txukun bilduko ditugu martxoko azken igandean zuzen irakurtzeko prest egon daitez.



Okerrak zuzenduz

Aritzen denari gertatzen omen zaio, eta jakina, guri ere bai: akats zenbait eskapatzen zaizkigu tarteka. Aurreko alean Patxi Irizar Donostiako I. Naziorateko Krosean erakusten zuten argazki bat sartu genuen eta 1936 urtekoa zela zehaztu. Jakina, data hori baino 20 urte geroagokoa zen; 1956koa hain zuzen ere. Horrezaz gainera, Andoaingen garai batean zeuden kirolari handien zerrendan ahaztuta geratu omen zitzaizkigun meritu handiko zenbait. Hurrengo batean aipatu beharko ditugu ba. Barkamenak hemendik.



Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko
Euskara Lansaila



Andoaingo Udala

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren dirulaguntzaz. **Zuzendaritza:** Jone Larrañaga. **Erredakzioa:** Xabier Lasa. **Maketazioa:** Eva Garcia. **Argazkiak:** Udal artxi-boa eta 'Argazkiak Andoain' liburua. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.

Azaleko argazkian Olazarko familia ageri da baserri aurrean.